




KPIa %1,8an kokatu zen irailean

Euskadiko KPI indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Irailean, kontsumo prezioen igoera zortzi hamarren apaldu zen aurreko hilabetearen aldean, %1,8ra arte, 2021eko martxotik izan duen baliorik txikiena. Erregaien merkatzeak eta elikagaien prezio txikiagoak eragin zuten bilakaera hori. Beste aldetik, azpiko inflazioa moteldu egin zen abuztuko %3,0tik iraileko %2,5era.

EAEko langabezia tasa %7,1era jaitsi da

EAEko langabezia tasa
Ehunekoak




Iturria: Eustat.

BJAren arabera, 2024ko hirugarren hiruhilekoan langabezia tasa %7,1 izan zen, aurreko hiruhilekoko datua baino lau hamarren txikiagoa, eta 2008tik jaso den erregistrorik apalena. Bilakaera hori langabeziak gizonen artean izan zuten beherakadak eragin zuten, aurreko %7,5etik %7,1era moteldu baitzen, emakumeen langabezia tasa %7,6an mantendu zen bitartean.



EAEn aireko garraioa handitu da berriro

Aireportuetatik igarotako pertsonak
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera. Milakoak




Iturria: AENA.

EAEko aireportuetatik irailera arte bidaiatu duten pertsonen kopurua **%6,1** igo zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, aireportuetatik igaro diren pertsonen kopurua sei milioira hurbildu zen, serie historiko osoan lortutako baliorik handiena izanik.

Autoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarriletik irailera



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak argitaratu berri dituen datuen arabera, **aurtengo lehen bederatzhi hilabeteetan 20.738 auto saldu ziren EAEn, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %5,5 gehiago.** Hori horrela izanda, 2023an hasitako joera positiboa berresten da.